



BATZORDE DEONTOLOGIKOA EUSKAL HERRIKO GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOA

SORKUNTZA ETA FUNTZIOAK

Oinarriak

Elkargo profesionalen praktikaren osotasunak (lanbide ezberdinetakoak), ondorengo baieztapenak onartzen ditu axioma modura:

1. Dagokion lanbidearen gizarte onarpena eta onarpen profesionala sustatzea.
2. Ekintza profesionala antolatu, bere gain dauden edozein forma eta modalitatean.
3. Ekintza profesionala, hiritar guztien intereseetara moldatzeaz arduratu.
4. Elkargo-kideen interes profesionalak defendatu.
5. Eskuhartze profesionalen kalitatezko sistemak bultzatu (praktika egokiak).
6. Etika profesionalarengatik eta hiritarren eskubideen errespetuagatik arduratu.
7. Praktika profesionalerako kode deontologikoa eguneratu eta proposatu.

Baieztapen guzti hauek ez dira balio ukaezinak bezela aintzatesiak soilik, gainera elkargoek xede eta beharrezko funtzioak bezela hartzen dituzte, hauen artean, praktika profesionala eta bere eginbeharrerako barne batzorde zehatzak sortzen dira. Batzordeetako bat lanbidearen deontologia da eta arrazoizkoa dirudi kontutan hartzen badugu, lanbidearen giza onartzearen sustapena, (gure kasuan Gizarte Hezkuntza) eta betebeharrak soilik balio etikoen errespetuzko marko baten barruan egin daitezkeelako aspalditik lanbide etikak dioen bezala.

Era berean, profesionalen interesak defendatzerakoan eta profesionalen kalitatezko esku-hartzeak sustatzerakoan, berdina baieztatu behar da. Etikak, bai kasu batean zein bestean egotea eskatzen du, hau da, bai profesionalengan, bai hiritarrengan pentsatzen denean.

Ondorioz, etika profesionala elkargoen kezka nagusietakoa da eta arrazoi honengatik lehentasun handia ematen zaie printzipioen idatzizko kode bat eta arau deontologikoak egiteari; giza onarpena sustatzeko funtzioa beteko duelako, profesionalen interesak defendatuko dituelako, esku-hartzeen kalitatea gehitu eta hiritarren eskubideak defendatuko direlako zerbitzu bat eskeintzen zaien garaian.



Guzti honekin loturik, Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoak errealitate guzti hauek txertatu ditu bere helburu eta funtzioen artean, Asedes-ek bere batzarrean 2007ko Apirilaren 28an, Balentzian onartu zuen Gizarte Hezitzailearen kode deontologikoa barneratu zuen eta Elkargoaren Batzorde deontologikoa sortu zuen.

Kode deontologikoa

CHEE-k aintzakotzat hartzen duen kodea," Ekintza eta jarrera profesionala, gizarte hezitzaileen lanbidearen garapena, eta honek Komunitateari eta biztaleei eskeintzen dien lanaren kalitatearen hobetzea dakarren printzipio eta arauen multzoa" bezala ulertzen da. Ondorioz, kodea, aurretik aipatu diren oinarrizko funtzioen betetzea posible egiten duen tresnarik garrantzitsuena bihurtzen da elkargoarentzako.

Ahala, egungo kode deontologikoak, alderdi orokorrak kontutan hartzen dituen bere lehen atalean, honelako definizioa ematen dio bere buruari: "Lanbidea eta eskuhartzearen orietabiderako printzipio eta arau etiko komun batzuen onarpena adiarazten ditu. Hauek, hezitzaileek biztanlego konkretu batekiko arduran konkretatzen dira. Biztanleri hau, gehienetan zailtasun eta menpekotasun egoeran aurkitzen da, eta hezitzaileak menpekotasun hau jakintza eta ekintza profesionalaren bidez aldatzeko aukeran daude". Honetaz gain, baieztatzen duenez, "Kode deontológiko bat osatzeak zera suposatzen du: Alde batetik, gizarte hezitzaileak edota lantaldeak aurrera eramaten dituen giza-heziketa ekintzen ardura profesionalaren onarpena. Eta, bestalde, lanbide autonomo bezala, bere artikulazio teoriko espezifikoen bidez eta gizartearentzako erabilgarritasuna argi izanda, gizartearen behar eta eskakizun konkretu batzuei erantzuna ematen diela kontutan artzea,"

Argi dago ondorioz, elkargoak kode hau, hemen agertu den erara ulertuaz, onartzean, herritarren onerako eta gizarte hezitzaileen eskuhartze giza hezitzailearen defentsan, elkargo profesionalen ohiturak zabaltzen dituela eta etika eta deontologia profesional baten defentsara gehitzen dela.

Komisio Deontologikoaren sorkuntza eta funtzioak

Aurrez azaldutakoaren haritik, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoak Komisio Deontologikoa sortu du, 2006ko urriaren 21eko datan, ondorengo funtzio hauek emanaz:



1. Euskadiko gizarte hezitzaileek, hiritarrei eskainitako zerbitzu profesionalak modu arduratsuan egin ditzaten eta beraien nahi eta espektatibetara egoki daitezen arduratu.
2. Gizarte hezitzaileei beraien lanean laguntzea, erabaki konprometituak hartu behar izaten dituztelako, eskaintzen dituzten zerbitzuek maiztasun handiz zalantza etikoak sor baititzake.
3. Zaindu Kodigo Deontologikoaren arau eta printzipioak bete daitezen, hau eginaz esku-hartze sozio-hezitzaileen kalitatea sustatzen dela kontuan izanik.
4. Zaindu etika profesionalaren aginduak betetzea eta esku-hartze hezitzailea zuzendua dagoen hiritarren eskubideak errespetatzea.
5. Adi egon gizartean eman daitezkeen aldaketetara, batik bat gizarte hezitzaileen zerbitzu profesionalak planteatzeko moduan eragiten dezakeenean kodigo deontologikoa profesioaren gida praktikoa denez, eguneratzeko asmoarekin.
6. Bitartekaritza lanak egin gizarte hezitzaileen eta beraien espektatibetan huts egin dutela ulertzen duten hiritarren gatazka etikoen gaitan. Modu berean, bitartekaritza lanak egin profesionalen eta beraien langileriaren artean, baldin eta bietako batek hartutako erabaki etikoak esku-hartze hezitzailean eragiten duen.
7. Gizarte hezitzaileak aholkatu etika eta deontologia profesionalaren inguruko gaitan.
8. Euskadiko gizarte hezitzaileen trebatze etiko eta deontologikoan elkarlana burutu.
9. Gizarte hezitzaileen Elkargoek edo eta elkarteek ospatuko dituzten komisio deontologikoen estatu mailako bileretan Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa ordezkatu.

Denbora igaro ala, hauek eta sortzen joan daitezkeen beste funtzioak, Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoko komisio deontologikoari ardura eman da

Bilbao, 2007ko irailaren 24
GHEE-CEESPVko Komisio Deontologikoa